



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko ekainaren 30a

49 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- “Oteiza Museo-Etxea” 14580-8 aurrekontu kontusailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (3. or.).
- Herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (3.or.).
- Medinaceliren eta Tuteraren arteko errepide zatiko herrilanei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak aurkeztua (4. or.).
- Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko akordioei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (5. or.).
- Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (5. or.).
- Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruzko galdera. Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (6. or.).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak inbertsio fondotan eta Nafarroako Zor Publikoan egindako inbertsioari buruzko galdera, Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua (7. or.).
- Pilota finala dela-eta, Asegarceren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanei buruzko galdera, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Barañainen ikasgelategirako eraikin bat eta erdi lurperatutako kiroldegi baten eraikitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Aurrezki Kutxak demokratizatzeko Foru Lege proiektua atzera bidaltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Barañaingo Udalean haurtzaindegiko langile eta atezain izateko lanpostuetarako deialdiaren baliogabetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Obanosko Misterioaren antzezenaren berreskuratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen Senatuaren egitura-keta-ereduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13.or.).
- Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoa-ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15.or.).
- Autonomien egoerari buruzko eztabaidan eskualdaketa-politikaren gainean egindako aipamenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Inbertsio ekonomikoari laguntzeko araubidea ezarri zuen Foru Legearen aurkako errekurtsioari Estatuko Gobernuak uko egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Komunitate Autonomoen arteko harreman horizontalen gainean Autonomien egoeraren eztabaidan egin ziren aipamenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- “Riegos de Navarra”k Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen gainean agindu duen ikerketa soziolo-gikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- “Nafarroako Parlamentua 1998 saria”ren deialdia (23. or.).

F Saila:
GALDERAK

“Oteiza Museo-Etxea” 14580-8 aurrekontu kontusailari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak “Museo-Etxea” 14580-8 aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

1.- Oteiza Fundazioaren Etxe-Museorako 14580-8 kontusailaren egoera.

2.- Fundazioaren egoera:

– 1996ko irailetik izandako bilerak eta hauen emaitzak.

– Fundazioko kideak gaur egun.

– Fundazioan ari diren langileak: betebeharrak eta urteko kostua.

– Patronatuko kideek ordainsaririk jasotzen al dute? Erantzuna baiezkoa balitz, zehaztasunak.

– Fundazioaren egoitza: aurreikusitako lanak eta kostuak, epeak zehaztuz.

– Etxe-Museoaren inaugurazioaren data gutxi gora behera.

Iruñean, 1997ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Nafarroako Aurrekontuei buruzko 97ko Legearen 27. xedapen gehigarrian gizartearen ekimenaz sortutako zentroyen inbertsioei laguntza ematea planteatzen da.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

– Xedapen hori betetzeko Departamentutik eman diren urratsak: Zeintzuk eta zer zentzorekin.

– Zentzoren batekin itunik edo hitzarmenik izenpetu al da?

– Zeintzuekin eta zer baldintzatan?

Aurreko erantzuna ezezkoa balitz:

– Zergatik ez da betetzeko aurrerapausorik eman?

– Inbertsioetan zentzorei laguntzeko asmorik al du Gobernuak? Noiz? Nola?

– Zeren zain dago Hezkuntza Departamentua inbertsioetarako laguntzak martxan jartzeko?

Iruñean, 1997ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Medinaceliren eta Tuteraren arteko errepide zatiko herrilanei buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Medinaceliren eta Tuteraren arteko errepide zatiko herrilanei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulok, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoak

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Sustapen ministro den Gabriel Arias Salgado jaunak aurreratu zion José Ignacio Palacios Nafarroako Gobernuako Herrilan Kontseilari jaunari, Estatuak laster aterako dituela lehiaketara Madril eta Erriberako hiriburua lotuko duen autopistaren Medinaceli eta Tuteraren arteko zatiaren obren emakida. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Zer konpromezu zehatz hartu du Sustapen ministroak Nafarroako Gobernuarekin proiektuak egin eta finantziatzeko?

2.- Zein da obrak esleitu eta egiteko egutegia, tarte edo zati bakoitzari dagokionez?

Iruñean, 1997ko ekainaren 16a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko akordioei buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko akordioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, idatzizko erantzuna eskatuz honako galdera hau egiten du:

Komunikabideetan azaldu diren datuen arabera eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko buruari

egotzitako adierazpenetan Itoizko urak orain arte defendatu direnez bestelako erabilera batzuk izango ditu.

Honengatik guztiarengatik jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuaren akordioak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin Itoizko urtegiko ur-baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramanak izan daitezten.

– Zer komunitate izango dira onuradunak?

– Ustiapen horiek gauzatzeko zer inbertsio egin beharko da?

– Ur baliabideei zer nolako erabilerak emanen zaizkie?

Lehenengoa ezezkoa izatekotan:

2. Nafarroako Gobernuak Konfederazioak aipatutako erabilereaz duen interesaz nolako eza-gupena duen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 17an.

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal.

Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari

atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

Noingo Osasun Etxeko Pediatri-Azterketa Zerbitzua geldirik dago duela hiru hilabetetik gutxi gora behera.

Honengatik jakin nahi da:

1. Momentu hauetan zein da 6 urte baino gutxiago dituzten Noingo haurrei zuzendutako osasun laguntza, 15 eguneko adinetik 6 urteetara arteko aldizkako osasun azterketak ezartzen dituen haurren osasun-txartelan ezarritakoaren arabera?

2. Nafarroako Gobernuak Noingo Osasun Etxeko pediatri azterketa zerbitzua berriro mar-

txan jartzeko asmorik al du? Noiz? Zenbat langile-
rekin eta nolako zerbitzuekin?

Iruñean, 1997ko ekainaren 18an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedienteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendáriz "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du:

1997ko ekainaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak -Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Kudeatzailearen ebazpen bat argitaratu du Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren gastua baimendu

eta kanpo esleipenerako espedienteari hasiera ematen diona.

Proposatutako esleipen modua lehiaketa publikorako prozedura irekian premiazko izapidea da eta lizitazio prezioa hamar milioi pezeta ingurukoa da.

Honengatik jakin nahi da:

1. Zer arrazoiengatik hasi du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuaren osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren kanpo esleipenerako espedientea? Akatsak atzeman al dira osasun-datuen eguneratze zerbitzuaren? Zenbat eta portzentaia.

2. Foru Administrazioak ez al ditu langile gaituak eta bitarteko teknikoak osasun-datuen eguneratze zerbitzua zuzenean egiteko? Ezezkoan, zein lirateke Foru Administrazioak izango lituzkeen langileen eta bitarteko teknikoen beharrak eta aurrekontuetan zer suposatuko luke osasun-datuen eguneratze zerbitzua zuzenean egin ahal izateko, kanpoan hitzartu beharrik izan gabe?

Iruñean, 1997ko ekainaren 18an.

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak inbertsio fondotan eta Nafarroako Zor Publikoan egindako inbertsioari buruzko galdera

ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako Unibertsitate Publikoak inbertsio fondotan eta Nafarroako Zor Publikoan egindako inbertsioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentari Talde honek jakin ahal izan duenez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 200 milioi pezeta inbertitu omen ditu inbertsio-fondo batean eta 100 milioi Nafarroako zor publikoan.

Harrigarria da NUPEk bere fondoak era horretan erabiltzea, unibertsitate publikoa finantzatzen duen Nafarroako Gobernuak zor publikoa jaulkitzeko beharra duenean, eta aipatu erakundeak diruzaintza atezuan duenean ordainketa jakin batzuk egiteko garaian.

Hori horrela, jakin nahi da:

– Nafarroako Gobernuak ba al du NUPen egoera finantziero horren berri?

– Zer irizten dio?

Iruñean, 1997ko ekainaren 19a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Pilota finala dela-eta, Asegarceren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanei buruzko galdera

«EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 23an egindako bilkuran, «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeak pilota finala dela-eta, Asegarceren eta Nafarroako Gobernuaren arteko harremanei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Bozeramaleak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Azken egun hauetan pilota finalari buruzko polemika bat ikusi izan dugu komunikabideetan, informazioak erabat kontraesankorrak direlarik.

Horregatik, galdera hau egiten dugu idatzizko erantzuna eskatuz:

– Pilota final hau dela-eta, harremanik izan al da Asegarceren eta Nafarroako Gobernuaren artean?

– Nafarroako Gobernuak Asegarcerengana jo al du honekin zerikusirik duen gairen bat adierazteko? Zer hitzetan?

Iruñean, 1997ko ekainaren 20an

Bozeramalea: Begoña Errazti Esnal

Udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak udal ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera pasatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak Udal Ikastolak Nafarroako Gobernuaren sarera transferitzeari buruz eginitako galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak zera azaltzen du:

1.- 1996ko urriaren 25ean Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuari Udal Ikastolaren zentroak Foru Administrazioaren hezkuntza-sarera transferitzera bideratutako elkarrizketak hastea eskatzeko akordioa hartu ondoren, Hezkuntza eta Kultura Departamentua eskatutakoak eduki zitezakeen ondorio faktiko eta juridikoak aztertzen hasi zen.

Laburbilduz, analisiak honako zailtasun hauek ditu aztergai:

1- Udal Ikastoletan lan egiten duten irakasleen eskubide eta betebeharretan Foru Komunitateko Administrazioa subrogatzearen bideragarritasunari buruzko arazo juridiko balizkoak.

2- Ondoko aukerek ekarriko lituzketen problemak:

1. aukera. Lan araubidearen subrogazioa eta mantentzea.

– Irakasleak Nafarroako Gobernuaren pertsonal laboralarentzako indarreango Hitzarmen Kolektibora biltzea.

– Kudeaketa administratiboari buruzko zailtasunak, baten ordeztu bi sare kudeatu eta irakasleei bi araubide juridiko ezberdin aplikatuz eratorriak.

– Zailtasun juridikoak subrogatu beharreko langileentzat araubide laboraleko plaza-kopurua haunditzeko, Konstituzio Auzitegiaren doktrina

ikusirik, zeina, aparteko kasuetan izan ezik, etorkizunean lan-araubideko plazak mantentzearen kontrakoa baita.

2. aukera. Funtzionario bihurtzea.

– Funtzionario-araubidera pasatzeari zenbait irakaslek uko egingo baliote sortuko litzatekeen egoera.

– LOGSEko 10. xedapen gehigarriak sorturiko arazoa. Aipatutako xedapenak zera ezartzen du derrigorrezkotzat:

“Araubide orokorreko irakaskuntzan aritzen diren funtzionarioak honako irakasle-kidego hauek parteide izango dira:

– Maisu-maistren kidegoa.

– Bigarren Mailako Irakaskuntzako Irakasleen kidegoa.

– Lanbide-heziketako Irakasle teknikoaren kidegoa.”

3. aukera. Funtzionario bihurtzea eta irakasle-entzako kidego orokorretan sartzea.

– Aukera honen lehenengo zailtasuna bere bideragarritasunean bertan datza, hirugarren baten menpean baitago (Gorte Orokorrak).

– Subrogaturiko eta, ondoren, kidegoen barnean kokaturiko langileak nahitaezko lekualdatzeetatik babesturik geldituko bide dira. Ostera, urte-mordo bateko esperientzia daukaten behin-behineko irakasle ugari beren borondatez kontra Nafarroa osoan zehar sakabanatuak izan dira. Hau dela eta, aukera hau arrakastaz burutuko balitz ere, maisu-maistren kidegoko egungo langileen baitan neurri bakar batekin neurtuak ez izateko sentsazioa sortzeko arriskua piztuko litzateke.

Azken aukera horri buruz, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko hainbat agintarirekin kontaktu informalak eduki dira, Administrazio honetako langileak kidego orokorretan zuzenki integratzeko eskakizunei egingo lieketen abegia zundatzeko. Orain arte, gai honen inguruan Administrazio zentralak duen jarrerari buruzko zantzurik ez da izan. Baina egoki den kontsulta oraindik ez da ofizialki egin.

Aurretiako analisi honek, burutua izan ondoren, oraindik ofizialki hasi ez diren Iruñeko Udala eta Nafarroako Gobernuaren arteko elkarrizketen aztergai izango diren kuestioak mugatzea ahalbidetuko du.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñea, 1997ko apirilaren 14a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Barañainen ikasgelategirako eraikin bat eta erdi lurperatutako kiroldegi baten eraikitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Barañainen ikasgelategirako eraikin bat eta erdi lurperatutako kiroldegi baten eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Barañainen ikasgelategirako eraikin baten eta erdi lurperatutako kiroldegi baten eraikitzeari buruz eginiko galderari erantzunez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau adierazten du:

1. Barañaingo eskolagunean, Polikiroldegia inguruan, eraiki ziren azken bi eraikinak, ikasgelategi izenekoak, 1996-97 ikasturtearen hasieran jarri ziren martxan eta berez zegozkienek hartu zituzten, Alaitz Bigarren Hezkuntzako Institutuak (euskara) eta Barañaingo Bigarren Hezkuntzako Institutuak (gaztelera), alegia. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak bi institutuak zuzendaritza taldeen eta Udalaren beraren eskaerak jaso zituen behin eta berriro, hasiera batean Udal Kiroldegia gehiegizko erabilera arinduko zuen kiroldegi baten eraikuntza eskatuz, Udal Kiroldegia ez baitzen nahikoa zentroen beharrei behar bezalako erantzuna emateko eta aldi berean populazioaren behar sozialak asetzeko.

Beste alde batetik, Hezkuntza Administrazioari ordezkariei eta gainerako parte interesatuen artean maila ezberdinetan egin diren bilera ugarietan datorren ikasturtetik aurrera planteatutako diren beste toki batzuen beharra egiaztatu da.

Egoera honen sorburua LOGSEn finkatutako hezkuntza eredia ezartzeko prozesuan dago, zentroetako eraikinetan eta instalazioetan birmoldaketa eta aldaketa ugari eskatzen baititu, DBH ematen den zentroetan batez ere, sistema berriaren eskakizunetara egokitzeko. Kasu batzuetan oso zaila da eraikuntzen neurria eta nondik norakoa zehaztea, ez baita bakarrik kontutan hartu behar Zentroa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutu bezalako kalifikazioaren zai dagoen, baizik eta Batxilergo motaren arabera edo ematen zazikion heziketa zikloen arabera izango duen behin betiko maila akademikoaren zai ote dagoen.

Hau da Barañaingo Institutuen kasua. Aitortu beharra dago, hala ere, DBHren ezarpen prozesuak ziurgabetasun ebitaezinak dakartzan arren, aipatutako bi ikasgelategien eraikuntza proiektuan asmatu zela, bien artean tokia utziz behar izanez gero eraikin berri batekin betetzeko.

2. Ondoko koadroan ikasleen aurreikuspenak azaltzen dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza				
	Gaztelera		Euskara	
Kurtsoa	Ikasle kop.	Taldeak	Ikasle kop.	Taldeak
1.	123	5	53	2
2.	136	5	51	2
3.	158	5	57	2
4.	162	6	59	2
Guztira	579	21	220	8

B.B.B. eta U.B.I				
	Gaztelera		Euskara	
Kurtsoa	Ikasle kop.	Taldeak	Ikasle kop.	Taldeak
3.	134	4	52	2
U.B.I	128	4	42	2
Guztira	262	8	94	4

N.Z.B. - I.E.E.				
Kurtsoa	Gaztelera		Euskera	
	Ikasle kop.	Taldeak	Ikasle kop.	Taldeak
1.	Granja-ra doa		Granja-ra doa	
2.	11	1	-	-
Guztira	11	1	-	-
Guztira	852	30	314	12

Proiektua eskatzeko, beharren zerrenda ikusten ari da momentu honetan. Hasierako hurbilketa batean, kiroldegiaz gain 16/18 gune eraikitzea pentsatu da, hauetatik 12 Alaitz Institutuarentzat eta 4 Barañain Institutuarentzat izanen lirakeelarik. Gune hauetan gela arruntak, berariazkoak, bitan banatzekoak, bulegoren bat eta abar eginen dira. Aurreikuspen hauetan Barañaingo beharrak eta Ipar Etxabakoitzeko ikasleak hartzeko aukera hartu dira kontutan.

3. Kiroldegi berriak araubide orokorreko irakaskuntza ez unibertsitarioa eskaintzen duten zentron gutxieneko baldintzak ezartzen dituen ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuak eskatzen duen zabalera baino handixeagoa du, bi klase batera eman ahal izateko banatzeko aukera duen; horrela, ikasgelategietatik aldageletara zuzenean joateko bi sarrera bereizi izanen ditu, klase orduetan aparteko erabilerak erraztuz.

4. Ikuskaritzaren txostenaren informazioaren arabera ez da somatu Ipar Etxabakoitzen Bigarren Hezkuntzako zentro berri bat zabaltzeko beharrik, Barañaingo egungo institutuak, galderan zalantzan jartzen den obrarekin, bere eragin eremuko eskola eskaera bereganatuko baitu, Ipar Etxabakoitz barne. Honi dagokionez, kontutan hartu beharra dago Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikuntza, aurreikusten denez 1998ko irailean bukatuko dena, eta gainera Navarro Villoslada eta Basoko institutuak daudela inguruan.

5. Proiektatutako lanaren aurrekontua 170 milioi pezeta ingurukoa da. Multzo guztia batera egin izan balitz, metro koadroko kostua ez zen ia aldatuko, eta, beste alde batetik, ez zen jakinen zer eraiki, beharrak berriki hartu diren erabakien eta etorkizunean derrigorrezko bigarren hezkuntzari eta ondorengoari buruz hartzen direnen menpe baitaude.

Honen guztiaren berri ematen dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 12an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Ablitasko liburutegiko lanpostua betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 122. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Ablitasko liburutegiari buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak honako hau jakinarazten du:

1. Martxoaren 24ko 88/1997 Foru Dekretuaren

bitartez, Gobernuak Foru Komunitatearen Administrazioaren zerbitzuko langilegoaren plantila organikoa aldatu du. Aldaketa honek lanegun erdiko (25 ordu) liburuzain lanpostu finkoa sortzea dakar. Hau betetzeko, Ablitasko liburutegiko zerbitzuak bere gain hartuko dituen liburuzaina kontratatzea aurreikusi da.

2. Lanpostua berehala beteko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langilegoaren behin behineko plantila organikoa aldatzen duen martxoaren 24ko 88/1997 Foru Dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Hau guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 10ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Aurrezki Kutxak demokratizatzeko Foru Lege proiektua atzera bidaltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Aurrezki Kutxak demokratizatzeko Foru Lege proiektua atzera bidaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Aurrezki Kutxak demokratizatzeko Foru Lege proiektua atzera bidaltzeari buruz egindako galderari erantzunez, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak honako hau adierazten du:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari Buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56. f) artikulua Foru Komunitateari uzten dio Aurrezki Kutxen gaineko eskumen osoa gai honi buruzko Hitzarmenen erregimen bereziari kalterik egin gabe.

Beste alde batetik, apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legeak eta ekainaren 12ko 131/1987 Foru Dekretuaren bidez egindako erregelamenduzko garapenak Nafarroako Aurrezki Kutxen zuzendaritza organoak arautu zituzten. Aipatutako Foru Legearen xedapen gehigarriak xedatzen du, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56. 1. f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bertan xedatutakoak ez duela ondorioz izanen gai honi buruzko hitzarmenetan eta ezta hauen aldaketan ere.

Legearen aurreikuspen honen xedea, Foru Diputazioak eta Ogasun Ministerioak hitzarturiko estatutu erregimen berezia ematen dion 1976ko Hitzarmenaren erregimen berezian kokaturik dagoen Nafarroako Aurrezki Kutxaren estatus juridiko berezia zaintzea da.

7/1987 Foru Legearen aldaketa partzialerako Foru Lege proiektuak, bere aldetik, bere xedapen gehigarriaren 2. zenbakian araudi honen garapenerako xedapenak indarrean jartzen zirenetik konstatuta sei hilabeteko epea ezarri zuen Aurrezki Kutxek beren estatutuak eta erregelamenduak araudi berriaren arabera egoki zitzaten.

Aipatutako proiektuak, dagokion xedapenean, honen edukiarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapenen indargabetzea ezartzen du.

Aipatutako araudien eremuan argi geratzen da, apirilaren 21eko 7/1987 Legetik eratorritako egoerari dagokionez, Lege proiektuaren onespak ekar litzakeen ondorioak nolabait zehaztu gabe daudela, proiektuaren xedapen gehigarria eta derogatzailea batera irakurriz gero helbide soziala Foru Komunitateko lurraldean duten Aurrezki Kutxa guztiei ezarri ahal zaiela uler bailiteke, kasu honetan Estatuaren eta Foru Administrazioaren artean adostutako estatutuaren alde bateko aldaketa izanen zelarik.

Honengatik, Foru Lege proiektuaren ezarpen eremua dela-eta zeuden zalantzak ikusirik, atzera bidaltzea komeni zela pentsatu zen.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez honen berri eman dizut.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Barañaingo Udalean haurtzaindegiko langile eta atezain izateko lanpostuetarako deialdiaren balio gabetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua» Parlamentari Taldeak Barañaingo Udalean haurtzaindegiko langile eta atezain izateko lanpostuetarako deialdiaren balio gabetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida» Parlamentari Taldeak Barañaingo Udalean haurtzaindegiko langile eta atezain izateko lanpostuetako deialdiaren balio gabetzeari buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau jakinarazten du:

1. Nafarroako Gobernuak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, gai honi buruzko ohar ofiziala egin du, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 17. artikulua modu argian aurreikusten duenez, euskarari buruzko araudiak eremu mistoko administrazio publikoek euskararen ezagutza eska daitekeen lanpostuak eskaintzea onesten duela azpimarratuz.

2. Era berean, Nafarroako Gobernuak epai honen kontra legezko intereseko kasazio errekurtsioa aurkezteko aukera aztertzen ari da. Errekurtsio mota honek ez du eraginik errekurritutako epaiak sortu duen egoera juridiko partikularrean, baina lege doktrina zuzena finkatzen eta etorkizunean Euskarari buruzko Foru Legearen agindu honi buruzko interpretazio akatsak ekiditen lagun dezake.

Dena dela, honako hau argi utzi behar da:

1. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai honek ez du jurisprudentziarik sortzen eta, beraz, ez da

zuzenbide sorburu bilakatzen (ezta interpretaziozkoa ere).

2. Epai presazko honek alde batera utzi du Euskarari buruzko Foru Legearen agindu zehatz bat, baina ez du modu zuzenean eta argian zalantzan jartzen bere indarra eta konstituzionalitatea.

Epaiak epaitutako kasutik at garrantzi eskasa izanagatik, Nafarroako Gobernuak uste du balizko antzeko kasuetan Epaitegi Gorenaren epai batek izan lezakeen ondorio orientzaile eta informatzaileak legezko intereseko errekurtsioa tartekatzea aztertzea justifikatzen duela.

3. Esandako guztiarengatik ez da beharrezkotzat jotzen gai honi buruzko legezko aldaketarik egitea.

– Kasu honi dagokion legezko agindua ez da balio juridikoaren aldetik zalantzan jarri; kasu zehatz batean honen ezarpena alde batera utzi da, besterik ez.

– Epai honek ez du etorkizunari begira aurrekaririk sortzen (adierazi den bezala ez baitu jurisprudentziarik sortzen).

– Honez gain, Nafarroako Gobernuak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, bere iritzia eman du Euskarari buruzko Foru Legearen 17. artikulua baliotasunari dagokionean, hau da, hizkuntza honen ezagutza Eremu Mistoko Administrazioetako lanpostu jakin batzuetarako beharrezkoa izatea, eta Auzitegi Gorenak gai honi buruz hitz egin dezan modua aztertzen ari da. Hau da, ahal diren bitarteko juridiko guztiak erabiltzen ari dira etorkizunean Euskarari buruzko Foru Legearen 17. artikulua aplikaezintasun kasuak ekiditeko.

Hau guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Obanosko Misterioaren antzezenaren berreskuratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Obanosko Misterioaren antzezenaren berreskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Obanosko Misterioaren inguruko hainbat gaiei buruz egindako galderari erantzunez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau adierazten du:

1. Nafarroako Gobernuak ez du beharrezkotzat jotzen Obanosko Misterioaren antzezena Nafarroako Jaialdiei lotzea.

2. Nafarroako Gobernuak askotan erakutsi du Obanosko Misterioaren duen interesa. Ez du alferrik parte hartzen, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bidez, Obanosko Misterioaren Fundazioaren Patronatuan. Fundazio hau 1992tik etengabe jasotzen ari da laguntza ekonomikoa Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen bidez. Fundazioaren estatutuetan azaltzen diren helburuen artean Obanosko Misterioaren antzezenaren berreskuratzea dago.

Hau guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa betez.

Iruñean, 1997ko apirilaren 10ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen Senatuaren egituraketa-ereduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen Senatuaren egituraketa-ereduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen Senatuaren egituraketa-ereduari buruz egin duen galderari erantzunez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua

eta hurrengoek xedatutakoa betez, honako hau adierazten dut:

1. Senatuaren ereduak Konstituzioaren 69.1 artikuluan dagoen adierazpena bete behar du, hau da, lurralde-ordezkaritzarako benetako Ganbara izatea, aipatutako lurralde-ordezkaritzari populazioaren arabera gainera emanen diona, bigarren irakurketarako Ganbara baten betebeharrak desitxuraturik utziko dituen eta oinarritzkoena zehaztuko duena eta Europako Batasunaren aurrean Komunitate Autonomoen jokoera amankomuna finkatuko duena.

2. Nafarroako Gobernuak atseginez jasoko ditu Senatuaren horretarako eratu den Ponentziaren eskaerak, kontutan hartu behar baita, erreforma konstituzionalarekin zerikusia duen gaia denez, ez dagokiola partehartze zuzenik hori zehaztean.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16an

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna

eskatuz, Foru Komunitatea nortasun bereziko komunitatea izateari buruz egindako galderari erantzunez eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako hau adierazten dut:

Nafarroa berezko eraentza, autonomia eta erakundeak dituen Foru Komunitate bat da, Espainiako Nazioaren parte dena, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak definitzen duenez, Autonomien Espainiaren barnean nortasun berezi eztabaidaezina duena, berezko auctoritas alegia, hala nahiago bada, esaera doktrinal ezagunaren arabera.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16an

Nafarroako Gobernuak lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien egoerari buruzko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak, idatzizko erantzuna eskatuz, Senatuko eztabaidan egindako hizkuntzaren erabilpenaren gaineko aipamenei buruz aurkeztutako galderari erantzunez eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako hau adierazten dut:

1. Hizkuntza, kultur ondarea eta komunikazio tresna denez, ez da borroka edo eztabaida politikoan erabili behar. Honela, komunitate elebidunetan edo eskualde batzuetan elebitasuna dituztenetan, hizkuntza ez da, Gobernuaren iritziz, arma politiko gisa erabili behar; aitzitik, errespeto eta babes berezia zor zaizkio, hala erabakitzen duten komunitateetan hizkuntza normalizazio egoera batera iristeko, Komunitate elebidunetan normalizaziorako lehenengo legeak agertu ziren datatik, 1982tik, hainbat Komunitatetan gertatu den bezala.

2. Nafarroako egoerari dagokionez, une historiko honetan Hobetzeari buruzko Legearen 9. artikulua xedatutakoak baldintzatuta dago, gero Euskarari buruzko azaroaren 17ko 18/1986 Foru Legean eta ezarpen Dekretuan garatu zena. Hizkuntzari buruzko gaietan, marko juridiko honi kasu egin behar diote Gobernuak eta Nafarroako aginte publikoek.

3. Konstituzio batasunaren muga Konstituzioaren 3 eta 149.1.30 artikuluek xedatutakoa betetzeak definitzen du gai honetan, Konstituzio Auzite-

giaren jurisprudentziak interpretaturik (azken aldi honetan, Konstituzio Auzitegiaren 377/1994 epaia, abenduaren 23koa).

Iruñean, 1997ko apirilaren 16an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien egoerari buruzko eztabaidan aipatu zen eskubide historikoen dinamikotasunaren norainokoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 1eko 22. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak Autonomien egoerari buruzko Senatuko eztabaidan eskubide historikoei egotzi zitzaien dinamismoaren garrantziaz idatzizko erantzuna eskatuz egin duen galderari ihardetsiz, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako erantzun hau bidaltzen dizut:

1- Nafarroako Foru Komunitatearen eskubide historikoen zehaztapena LORAFNAko 2. artikuluan gauzatua dator.

2- Egungo une historiko honetan Nafarroaren eskubideak aipaturiko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoan gaurkotuta aurkitzen dira.

3- Harreman horizontalen esparruan Konstituzioko 145.1 eta 2. artikuluan ezarritakoa dago indarrean, LORAFNAko 70. eta hurrengo artikuluek garatua.

Gaiaren arabera beharrezkoak diren akordio edo itunak, burutzekotan, aipatutako zuzenbidezko egituraren barnean burutuko dira, Nafarroako Gobernuaren ustez; azpimarratzekoa izanik gaur egungo Autonomien Estatuaren praktikan erkidego ezberdinen arteko akordioen izenpetzea ez dela izan lankidetzatza horizontaleko formularen bereizgarri.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Autonomien egoerari buruzko eztabaidan eskualdaketa-politikaren gainean egindako aipamenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan eskualdaketa-politikaren gainean egindako aipamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Autonomien Egoerari buruzko eztabaidan eskualdaketa-politikari buruz egindako aipamenaren inguruan Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako erantzun hau bidaltzen dizut:

1- Konstituzioak Justiziaren Administrazioarako ezartzen duen eredu konplexuak, hainbat erabaki-gunekin (CGPJ, Estatu eta Erkidego Autonomoak) eta beharrezkoak diren erreforma organiko eta prozesalak burutu izan gabe, transferentziak gain hartzea zaildu egiten du. Ardura hartzeak bakarrik erraz dezake hori.

2- Justizia-administrazioaren esparruko giza eta gauza-baliabideen transferentzia, Transferentzia Batzordearen baitan egin behar da, non Parlamentari Taldeek beren ordezkapena duten eta hari

buruz dituzten irizpideak azal ditzaketen, negoziagai diren transferentziei buruzko edozein informazio edo azterketa eskatu ahal izateaz gain.

3- Transferentziei dagokienean, Nafarroako Gobernuaren politika arduratsua eta elkertasuneko izango da, halakotzat zera ulertuz: Nafarroaren interesak lehentasunez kontuan edukitzeari utzi gabe, homogeenak izan litezkeen sail edo jarduerakako transferentziei buruzko estatu-mailako politiken aurrean jarrera abegitsua izango duela; adibidez, Justiziaren Administrazioaren esparruko transferentzien guztienganatze-politika-ri dagokionean.

4- Gobernuaren jardura gai honetan inbestidura-programak gidatzen du, zeina ez baita vindicatio potestatis sistematikoan oinarritzen, ezta atzetik jarraika ibiltzean oinarrituriko politika batean ere.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Inbertsio ekonomikoari laguntzeko araubidea ezarri zuen Foru Legearen aurkako errekurtsioari Estatuko Gobernuak uko egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak inbertsio ekonomikoari laguntzeko araubidea ezarri zuen Foru Legearen aurkako errekurtsioari Estatuko Gobernuak uko egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inbertsio ekonomikoarentzat laguntza-erregimen bat ezarri zuen Foru Legearen kontra tarteraturiko errekurtsioari Estatuko Gobernuak uko egin izanaren inguruan Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako erantzun

hau bidaltzen dizut:

1- Nafarroako Gobernuko Lehendakariak zera eskatu du Autonomien Estatuaren egoerari buruzko Senatuko eztabaidan: Nazioko Gobernuko Presidenteak uko egin diezaiola Parlamentari Jaun horren arretagai den inbertsio eta jardura ekonomikoarentzako laguntzari buruzko Foru Legearen kontrako errekurtsioari.

Gainontzekoari dagokionez, ez da Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren ohitura Nazioko Gobernuko Presidenteari zuzenduriko galderak erantzutea.

2- Tarteraturiko errekurtsioa ebazteke egonik, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren balizko edukari dagokionez, goizegi da etorkizuneko egite oraindik ezezagun bati buruzko iritzia emateko. Nolanahi ere, errekurtsioari uko egitea ahalbidetuko duen bere eskura daukan edozein bitarteko legitimo erabiliko du Nafarroako Gobernuak.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

Komunitate Autonomoen arteko harreman horizontalen gainean Autonomien egoeraren eztabaidan egin ziren aipamenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Komunitate Autonomoen arteko harreman horizontalen gainean Autonomien Egoeraren eztabaidan egin ziren aipamenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Senatuko eztabaidan Autonomi-Erkidegoen arteko harreman horizontalei buruz eginiko aipamenei inguruan Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko foru parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz egindako galderari ihardetsiz, eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua xedatutakoa betez, honako erantzun hau bidaltzen dizut:

1- Batasun konstituzionalaren elementu dinamiko indarreango eremu konstituzionalari egokitutako kontzeptio bati doa lotuta, doktrinalki ulertu

izan den moduan, aipaturiko batasunari buruzko ikuspegi estatiko edo geldizale bati kontrajarririk.

2- Egungo une historikoan, indarreango Konstituzioa zehazten duen Forua Birrezarri eta Hobeztuari buruzko Lege Organikoak ahalbidetzen duena da Nafarroaren eskumenen gehieneko kopurua.

3- Plano bertikal eta horizontalean Nafarroak dituen harremanen eremua esplizitatzeak ez du nahitanahiez esan nahi kultura edo hizkuntza bezalako arloetan botere- edo eskumen-galerarik dagoenik.

4- Indarreango eremu konstituzionalak lehenengo xedapen gehigarriaren bitartez Nafarroako foru eraentza bermatzen du, eta bereziki Hitzarmen Ekonomikoari buruzko bere sistema tradizionala, Konstituzio Auzitegiak irailaren 20ko bere 140/1990 Epaian agertu zuen bezalaxe.

5- Baionako Tratatuak bultzaturiko mugaz gaindiko eremu berria, joan den martxoaren 10ean indarrean sartu zenak, aipatutako Tratatuaren aurrikusten den espainiar eta frantziar jarraipen-batzordean Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari bat egon dadila galdatzen du.

Iruñean, 1997ko apirilaren 16a

Nafarroako Gobernuko Lehendakaria: Miguel Sanz Sesma

“Riegos de Navarra”k Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen gainean agindu duen ikerketa soziologikoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Riegos de Navarra”k Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen gainean agindu duen ikerketa soziologikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 23a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidearen herri-lanen egokitasunari buruzko azterketa soziologikoaren hainbat alderdiren inguruan Andrés Bastera Layana, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak idatzizko erantzuna eskatuz Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua babesean egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura Kontseilariak honako honen berri ematen du:

Nafarroako Gobernuak 1996ko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez onetsitako eta Ingurugiro-Ministerioarekiko koordinazioan burutu den Nafarroako ubidea eta bere ureztalurren eraldaketaren ingurugiro-eraginari buruzko azterketa bateratua delakoan, badago onarpen soziala izeneko dokumentu bat.

Jarraian dokumentu horren emaitza transkribatzen da:

Nafarroako ubidetik ureztatu ahal izango duten herrietako alkate eta zinegotzien %87a, proiektua burutzearen alde.

1- Sarrera.

Nafarroako ubidetik ureztalur bihurtu beharreko lurraldeetan kokaturik dauden herrietako alkate eta zinegotziek argiro eta gehiengo nabarmenez (inkestaturik %87ak, hain zuzen) onartzen dute proiektua guztiz burutzea. %10a kontra dago eta %3ak ez du iritzia azaldu.

Era berean, inkestaturiko udal ordezkarien %87ak uste du beren bizilagunek oso garrantzitsu jotzen dutela proiektua beren herriarentzat, eta haren gauzatzeak nekazaritza, horniduren ziurtasun eta kalitate eta, orokorki, beren herriko ekonomiari onurak ekarriko dizkiela. Elkarrizketaturiko 68 alkate eta zinegotzietatik 9k soilik uste dute proiektuak beren herriei ezein onurarik ekarriko ez diela.

Lanen egokitasunari buruz sorturiko eztabaidan, elkarrizketatuengan arruntena den jarrera honakoan datza: Nafarroako Gobernuaren eta Uraren Aldeko Plataformaren adierazpenez fidatzean (%81eko konfiantza-indizea entitate bakoitzarentzat), eta Itoizko Koordinakundeak esandakoez mesfidatzean (erantzunen %79a, kontrakoa).

Beharrian, helburu eta uraren jatorri eta helmugari dagozkienean, argi eta garbi (erantzunen %80a baino gehiagorekin), hartzen dituzte ontzat lanen aldeko argudioak alkate eta zinegotziek, eta osoki baztertzeko dituzte kostu ekonomikoan oina-

rritzen diren kontrako argudioak. Ingurugiro-kalteak onargarri jotzen dira.

2- Inkesta eta bere edukia.

Datuen jatorria hauxe da: Nafarroako ubidea eta bere ureztalurren eraldaketa proiektuaren onarpen sozialari buruzko azterketaren barnean buruturiko inkesta bidezko iritzi-azterketa. Nafarroako ubidean garraiatutako uraren bidez beren udalerriko lurren zati bat ureztalur bihurtzearekin printzipioz etekina atera dezaketan 47 herrietako alkate eta zinegotzien iritzia dira inkestaren jakin-gaia. Hauetako 45ek beren lankidetzaren osoa eskaini zuten, horrela 68 elkarrizketa egin ahal izan zirelarik: 2000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bana, 2000 baino gehiagokotan bina, eta hiruna Tafalla eta Tuteran. 35 alkate eta 33 zinegotzi izan ziren elkarrizketatuak.

Lorturiko datuek zera agertzen dute:

Lehendabizi, elkarrizketatuen %75ak bere burua gaiari buruz ongi informatutzat jotzen duela.

Udalerrien %69ak adierazten du gaia bere Udalean behin baino gehiagotan tratatua izan dela, Osoko Bilkuran edo Batzordean; %29ak, ordea, bere Udalean tratatu ez duela esaten du.

Baterako ekimenari bere herriko biztanleek ematen dioten garrantziari dagokionez, %87ak haundia dela uste du. Portzentaia hauek %91raino igotzen dira Ebroko erriberan. %7aren ustez, ez da oso arazo garrantzitsutzat hartzen, eta %3arentzat ez da batere garrantzitsutzat hartzen.

3- Adostasun eta desadostasunaren zergatiak.

Bere herriarentzat proiektua oso interesgarria dela pentsatzen duen gehiengo horrentzat, iritzi honen arrazoi nagusia ondokoan datza: ura gauza guztietarako ezinbestekotzat hartzean; aberastasuna eta bizia ekartzen du, derrigorrezko elementu bat izanik beren herrien nekazaritza eta industri garapenerako.

Zenbait herritan, urak nekazaritza salbatu eta despopulazioa ekidindo du; beste batzutan hobetu egingo du nekazaritza, eta, haietako askorentzat, behar adinako eta kalitatez behar bezalako hornidura bermatzea lortuko da.

Proiektua garrantzi gutxi edo inolako garrantzirik gabekotzat jotzen duen gutxiengoaren argudioak ureztalurrak bakarrik nekazariari interesatzen zaizkiela eta herrian nekazari gazte gutxi dagoela esatean gauzatzen dira. Zenbait herritan ureztatzeko tradizioaren gabezia aipatzen da, eta beste batzuetan tamaina handiko eta epe luzerako lanei

buruz daukaten eszeptizismoan oinarritzen dute beren jarrera.

4- Erakundeenganako konfiantza.

Lanen aldekoen eta aurkakoen artean jadanik urteak direla hasitako eztabaidan, hala alderdi bakoitzak erabiltzen dituen planteamendu eta argudioei nola berauek pertsonalki sortarazten dieten konfiantzari dagokienean, honako hau adierazten dute udal ordezkariak:

%81ak uste handia edo nahikoa du bai Nafarroako Gobernuak bai Uraren Aldeko Plataformak adierazitakoetan.

Gertutik jarraituz (erantzunen %78a) kokatzen dira nekazaritza sindikatu eta Nekazaritza eta Herrilan Ministerioek erabilitakoak (elkarrizketen %74a).

Europako erakundeek elkarrizketatuen %61aren konfiantza lortzen dute, eta %10ak ez du haiei buruzko iritzirik ematen.

Ingurugiroaren defentsarako elkarteek eta justizi auzitegiek ez dute jarraitzaile askorik elkarrizketatuen artean, proiektuaren inguruan egin dituzten jarduketari dagokienean. %51k du konfiantza elkarte horiengan, eta %45ak bakarrik auzitegienan.

Azkenik, elkarrizketatuak argi eta garbi mesfidatzen dira Itoizko Koordinakundeaz (erantzunen %79a). Organizazio honek ez du konfiantza handia ematen dion ezein erantzunik jaso.

5- Nafarroako ubidea eta ureztalurretako jarduketaren aldeko argudioak.

Ordezkarik demokratikoen artean jasotako argudioak, besteak beste, hauexek dira:

“Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikitzea oinarritzakoa da Nafarroako nekazal garapenerako.”

“Aurreikusitako helburuetarako biltzen da ura: ureztalurren berriak sortzeko, dagoeneko existitzen direnak finkatzeko, hornidurak hobetzeko eta elektrizitate-energia ekoizteko.”

“Aurreikusitako lan hidraulikoekin, Nafarroaren ur-premiak urte askotarako aseturik geratzen dira.”

“Proiektuan aurreikusitako hektarea guztiak ureztalurren bihurtzea beharrezkoa da.”

“Itoizko urtegiaren ura Nafarroarentzat da.”

“Nafarroako ubidea ez da ingurugiro-arrazoiak direla eta bideraezin deklaratu.”

“Beste iturri batzuetako ureztalurren urak ez dago; presa txikiak, e.a..”

6- Jarrera-hartze orokorra proiektuaren aurrean.

Proiektuaren osotasunari buruz aldeko edo kontrako jarrera daukaten galdetu zaielarik, erantzunen %87ak haren aldeko jarrera agertu du (%49ak guztiz aldekoa, %31k aldekoa eta %7ak aldeko samarra). Elkarrizketatuen %10ak proiektuaren kontrako iritzia agertzen du (%3ak kontrako samarra, %4ak kontrakoa eta %3ak guztiz kontrakoa).

7- Inkestatutako herriak.

Inkestatutako 47 herriek 112.852 biztanleko zuzenbidezko populazioa biltzen zuten 1995ean; alegia, Nafarroako populazio osoaren %21a, gutxi-gorabehera.

Herri hauetan, nekazaritzan lan egiten duen populazioaren batezbestekoa %4,85koa da, Nafarroako batezbestekoa den %3,40aren gainetik, argi eta garbi.

Herriak honako hauek dira: Ablitas, Adiozt, Añorbe, Argedas, Artaxona, Barillas, Beire, Berbintzana, Cadreita, Caparrosa, Zarrakastelu, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, Eneritz, Falces, Fitero, Fontellas, Larraga, Legarda, Marcilla, Mérida, Mendigorria, Miranda de Arga, Monteagudo, Murchante, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Muruzabal, Obanos, Erriberri, Azkoi, Pitillas, Gares, Ribaforada, San Martín Unx, Santacara, Tafalla, Tirapu, Tuter, Tulebras, Ukar, Uxue, Uterga eta Valtierra.

Bardeetako Batzordeko Lehendakaria ere izan zen elkarrizketatua, potentzialki ureztalurren artean baitaude Bardeetako Komunitateetako hainbat lurralde.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurarako Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Asociación Mensajeros de la Paz delakoari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 14ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 23a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak "Asociación Mensajeros de la Paz" Elkarteari emandako dirulaguntzei buruz egindako galdera dela-eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak honako erantzun hau eman du:

1. Zenbateko dirulaguntza eta zer dela-eta jaso du "Asociación Mensajeros de la Paz" Elkarteak gaur arte?

1986ko uztailaren 30ean Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat izenpetu zuen "Asociación Mensajeros de la Paz" Elkartearekin bost etxe funtzional kudea zitzan, osotara 4tik 18 urtera bitarteko 29 haurrentzako tokia zegoelarik.

Hitzarmena sinatu arte, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egonaldiak ordaintzeko sistemaren bidez ordaintzen zuen sartzearen kostua. Hitzarmenaren ondoren moduluaren prezioa haur eta urte bakoitzeko 597.500 pezetan finkatu zen. Hitzarmenaren iraupena 1995eko abenduaren 31ra arte zehaztu zen.

1989. urtean zentroen kopurua seira zabaldu zen eta plazak 33ra, modulu berraztertu eta haur eta urte bakoitzeko 819.650 pezetan gelditu zela-rik.

1996ko martxoaren 29an Hitzarmen berria gauzatu zen, urtero berrikus daitekeena, eta honen bidez ondoko zentroen kudeaketa eskuordetu zen:

- Argarai txaleta: Behaketa eta Harrera Zentroa:

- * Otik 8 urtera bitarteko txikientzat.
- * Plaza kopurua: 8 gehi badaezpadako 4.
- * Modulu finkoa: haur eta urte bakoitzeko: 2.165.475 pezeta.
- * Modulu aldagarria: haur eta urte bakoitzeko 796.941 pezeta.

- Etxe funtzionalak:

- * Plaza kopurua: 38 plaza 7 etxetan banaturik.
- * Modulu finkoa: haur eta urte bakoitzeko 1.572.576 pezeta.
- * Modulu aldagarria: haur eta urte bakoitzeko 563.342 pezeta.

1997. urterako, KPI berrikusteko klausula ezarrituz, honako modulu hauek erabiltzen ari dira:

- Argarai txaleta:

- * Modulu finkoa: haur eta urte bakoitzeko 2.247.763 pezeta.
- * Modulu aldagarria: 827.225 pezeta.

- Etxe funtzionalak:

- * Modulu finkoa: haur eta urte bakoitzeko 1.632.334 pezeta.
- * Modulu aldagarria: haur eta urte bakoitzeko 584.749 pezeta.

Ordainketaren kontzeptua, beraz, ez dagokie dirulaguntzei, baizik eta bertan sartutako adin txikikoak erabat zaintzearen truke hitzartutako zerbitzuari.

Ordaindutako diru-kopuruak eransten dira.

2. Elkarte honek egun erabaki gabe dagoen egitarau edo eskakizunen bat aurkeztu al du?

Momentu honetan ez da ageri Elkartearen egitarau edo eskakizunen bat erabaki gabe dagoela.

Argarai txaletaren egokitzapen lanak bukatzen direnean hornikuntzari ekingo zaio adin txikikoak behin betirako egoitzara pasa daitezela. Berriztatutako Zentro honetan adin txikikoak zaintzeko programa berriak garatu nahi dira: eguneko zentroa, gurasoentzako eskola eta abar.

Beste alde batetik, Gizartean Zailtasunak dituzten Adin Txikikoak Zaintzeko Bulegotik etxeratu dauden adin txikikoen bilakaeraren segimendua egiten da eta etxeen funtzionamendua ikus-

katzen da eta sustengua ematen zaie. Baliabideen ebaluaketa, bi talde teknikoen arteko koordinazioa eta Hitzarmenaren betetze-maila onak dira, itunpeko plazzen %95 bete direlarik (38tik 36).

Behar diren ondorioak izan ditzan, honen berri ematen dizut.

Iruñean, 1997ko apirilaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

1996 eta 1997. Mensajeros de la Paz delakoaren zentroi buruzko datu ekonomikoak

Ebazpena	Kontzeptua	Kostu Osoa	NGOI ordainketa	Ordainketa
294/96	aurrerak., urt.-96	11.449.121	11.449.121	11.449.121
urtarrilaren 23koa	Erreg. 3.a C 95	12.019.898	12.019.898	-268.601
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		11.180.520
1739/96	aurrerak., api.-96	7.471.983	7.471.983	7.471.983
apirilaren 12koa	Erreg. Etxe fun. 1. Hiruhil. 96	8.980.747	8.980.747	-2.468.374
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		5.003.609
2291/96	anticipo 3º B	15.300.368	15.300.368	15.300.368
maiatzaren 13koa	Erreg. Etxe fun. api.-96 Erreg. Lakartxela api.	6.437.373 1.032.662	6.437.373 1.032.662	-1.948
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		15.298.420
3424/96	aurrerak., 4. B	15.281.192	15.281.192	15.281.192
uztailaren 1ekoa	Erreg. Etxe fun. 3. B Erreg. Lakartxela 3. B	13.151.919 2.028.690	13.151.919 2.028.690	-119.759
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		15.161.433
4801/96	aurrerak. 5. B	15.034.721	15.034.721	15.034.721
irailaren 24koa	Erreg. Etxe fun. 4. B Erreg. Lakartxela 4. B	13.282.869 1.837.457	13.282.869 1.837.457	-160.866
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		14.873.855
5579/96	aurrerak. 6. B	15.050.745	15.050.745	15.050.745
azaraoren 22koa	Regul. Hog. Func. 5º B Reg. Lakartxela 5º B	13.270.437 1.710.784	13.270.437 1.710.784	-53.500
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		14.997.245
5579/96	anticipo 6º B	15.050.745	15.050.745	15.050.745
azaraoren 22koa	Erreg. Etxe fun. 5. B Erreg. Lakartxela 5. B	13.270.437 1.710.784	13.270.437 1.710.784	-53.500
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		14.997.245
175/97	aurrerak. 1. B 97	15.096.528	15.096.528	15.096.528
urtarrilaren 22koa	Erreg. Etxe fun. 6. B Erreg. Lakartxela 6. B	13.265.819 1.649.816	13.265.819 1.649.816	-135.110
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		14.961.418
	aurrerak. 2. B 97	15.470.026	15.470.026	15.470.026
	Erreg. Etxe fun. 1. B 97 Erreg. Lakartxela 1. B 97	13.334.793 1.720.940	13.334.793 1.720.940	-40.795
		Ebazp. bitartez ordaind. guztia		15.429.231
		1996 urtealdiari dagozkion ordainketak		76.648.573
		1997 urtealdiari dagozkion ordainketak		30.525.759

	1996	1997
Modulu finkoa	1.484.331	Erabil. eta urte bak. 1.540.736 pzta.
Modulu aldagarria	796.941	Erabil. eta urte bak. 827.225 pzta.
Modulu finkoa	2.165.475	Erabil. eta urte bak. 2.247.763 pzta.
Modulu aldagarria	796.941	Erabil. eta urte bak. 827.225 pzta.
Modulu finkoa	1.572.576	Erabil. eta urte bak. 1.632.334 pzta.
Modulu aldagarriae	563.342	Erabil. eta urte bak. 584.749 pzta.

Oharra: Lakartxela etxe funtzionala, Argarai txaleta egokitu arte erabiliko da.

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

“Nafarroako Parlamentua 1998 saria”ren deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 16an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuruak proposamena egin du “Nafarroako Parlamentua 1998 saria”ren deialdirako, Nafarroako Gorteei buruzko ikerketa historikoa sustatzeko asmoz. Proposamena eta kontuhartzailearen txostena ikusita, ERABAKI DA:

1. “Nafarroako Parlamentua 1998 saria”ren deialdia onartzea, Nafarroako Gorteei buruzko ikerketa historikoa sustatzeko asmoz. Ondoren paratzen dira horri buruzko arauak.

2. Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20a

Jarduneko Lehendakaria: M^a. Rosario Villanueva Iturralde

“Nafarroako Parlamentua 1998 saria”ren deialdia

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gorteen mendetako tradizioaren jarraitzaile izateko ohorea du eta Gorteen oroimena irauarazi nahi du, mendetan zehar Nafarroako herriaren nortasuna adierazgarri gisa izan duen garrantziaren jakitun.

Gogo horrek eta zerbait maitatzeko ezagutu behar delako uste sendoak bultzatu dute Nafarroako Gorteei buruzko ikerketa historikoa bultzatzera.

Beraz, Nafarroako Parlamentuak ikerketa historikoei buruzko sarirako deia egitea erabaki du, hurrengo oinarrien arabera.

1. oinarria. Deialdiaren izaera.

Nafarroako Parlamentua 1998 sarirako deia egiten da, ikerketa historikoei buruzkoa, 1998ko martxoan emango dena.

2. oinarria. Saridungaiak.

Norbanakoak zein norbanakoek osaturiko taldeak aurkez daitezke sarira. Adinez nagusi eta diplomatu, lizentziatu edo doktore unibertsitate tituluren baten jabe izan beharko dute.

Ezin izango dira sarirako lehiatu parlamentarioak, Parlamentuko funtzionarioak, ezta batzuen ez bestetzuen odolkidetasun edo ezkontzahaidesan senideak ere, bigarren graduaren barruan.

3. oinarria.- Lanen edukia.

Saria ateratzeko, deialdian parte hartzen dutenek ikerketa historikoari buruzko lanak aurkeztuko dituzte, argitaragabeak. Nafarroako Gorteen historia, bere alde ezberdinetan, jorratuko dute, nahitaez.

4. oinarria. Formaren aldeko betebeharrak eta epeak.

Sarira aurkeztu nahi diren lanak inprimatuta aurkeztuko dira eta disketean, Windowserako Microsoften Word sisteman, edo haren parekoan, zuzenketa, ezabaketa edo urradurarik gabe. 125 folio luze izango dira gutxienez edo ordenadoreko 250.000 karaktere. Hiru ale aurkeztuko dira lan bakoitzetik, horietatik bat egileari edo egileei itzuliko zaiolarik, behar bezala zigilatuta eta erregistraturik, aurkezpen datarekin.

Lanak aurkezteko aldia 1998ko otsailaren 2tik otsailaren 16ko eguerdiko 12ak arte luzatuko da.

5. oinarria. Epaimahaia

Aurkeztutako lanak epaimahai batek aztertuko ditu. Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria izango da epaimahaiburu, eta hurrengoak epaimahaikide: Parlamentuko Mahaiako bi kide, Lege-lari Nagusia, Parlamentuko Mahaiak izendaturiko bi unibertsitate-irakasle eta Biltzarreko artxibero-liburtegitzaia, epaimahaiko idazkari gisa arituko dena, hizpidearekin eta botoarekin.

Epaimahaikideen botoen gehiengoz emango da saria.

Epaimahaiak, botoen gehiengoarekin, saria eman gabe utz dezake. Halakoetan, akzesit bakarra eman dezake, egoki baderitzo.

6. oinarria. Zenbatekoa.

Sariak 500.000 pezeta izango ditu.

Akzesita ematekotan, zenbatekoak ezin izango du 250.000 pta. gainditu.

7. oinarria. Argitalpena.

Nafarroako Parlamentuak bere esku hartzen du saria edo akzesita jasotzen duen lana argitaratzeko aukera, nahi adina aldiz eta egoki iritzitako eran, osorik edo zatika, egileari inongo kopururik ordaindu gabe egile-eskubideak direla-eta.

Egileak ere argitara dezake lana, bere kabuz, egoki deritzon moduan, baina azalean jarri behar du, beti ere, jaso duen saria edo akzesita. Halakoetan, argitaraturiko obraren 25 ale emango dizkio Nafarroako Parlamentuari.

Nafarroako Parlamentuak saritu gabeko lanen ale bana gordeko du eta egileei itzuliko die bestea, epaimahaiak ebazpena eman eta hilabeteko epean hala eskatzen baldin badute. Nafarroako Parlamentuak ez du inongo argitalpen-eskubiderik izango saritu gabeko lanen gainean.

8. oinarria. Bestelako betebeharrak.

Deialdian parte hartzeak berarekin dakar oinarriok eta epaimahaiaren ebatziak bere osotasunean onartzea. Epaimahaiak gaitasuna du gerta daitekeen gorabehera edo erreklamazio oro ebazteko, modu apelaezinean.

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---